

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

Magia



UXUE APAOLAZA LARREA

Umeak “jarri ordenagailuko papera” esaten dit testu prozesagailua irekitzeko: hizkien fasean dago. Papera. Eta ni ere hala ari naiz idazten, aurrean papera banu bezala: pantaila bat dut berez, eta ideiarik ez daukat teklatuan agintzen dudana pantailako zuritasunera hain zehatz nola iristen den. Gutxiago dakit idatzitakoa beste herri batean dagoen ordenagailu batera nola iritsiko den, eta nola manipulatu ahal izango duten aldizkari batean txertatzeko. Ziur asko, inprimatzeko ordua iritsi arte ez nuke ezer ulertuko (berrir) azalduko balidate ere.

Medikuarenean eskarlatina dela esan didatenean, proba pare bat egin ondoren, txorizoa erostera bezalaxe joan naiz farmaziara botika bila (tira, txorizoarena ere norbaiti bururatu zitzaien noizbait). Estreptokoko bat da, A taldekoa, ia desagertuta egondakoa. Nola ikusi dute? Eta azaldu didaten arren, zaila zait imajinatzea gauza txiki horiek nola ikusi zituzten, nola asmatu zen horiei aurre egiteko botika bat, botika horrek nola funtzionatzen duen.

Mitologia indibidual baterako materialez inguratuta nago, nondik eta nola iritsi zaizkidan ez dakidan objektu eta asmakariz. Bizitza errazten, salbatzen, erosotzen didate. Eta kritika daiteke banan-banan nola alienatu nauen horietako bakoitzak, baina Gabonetan pasako dituzun une zailetan, zurekin egon ahalko dut, ondo-ondoan, belarrira maitasuna xuxurlatzen, ehun kilometroko distantziara. Haurrak pantailako botoia sakatu du, eta dena desagertu da: “magia”, esan du. Zientzia esan nahi zuen. ●



ADUR

Kontsumoa

EAEko nekazarien ENBA sindikatuak landutako txostenaren arabera, saltoki handiek bertako produktuak askoz garestiago saltzen dituzte erosten dituzten prezioekin alderatuta. Adibidez, behi esnea %45-55 garestitzen dute eta oilaskoa %70-80. Neurriak eskatu ditu sindikatuak.

Hedabideak

Hekimenek kritikatu du euskal hedabide gehienak Covid-19ko dirulaguntzatik kanpo daudela. Hedabideak laguntzeko Eusko Jaurlaritzak aurtun egindako bi dirulaguntza deialdi aztertu ditu herri ekimeneko euskal hedabideen elkartek, eta ondorioztatu du “baliabide handitze nabarmena” behar dela.

Euskara

Ikastoletako zuzendariak planto egin diote Jaurlaritzari, bilera gaztelania hutsean egiteagatik. Power-pointa euskaraz jarri eta azalpen guztiak gaztelaniaz egingo zituela, “gaia oso teknikoa delako”, horrela hasi zuen bilera Hezkuntza sailburuordeak. Zuzendari ugari bilera uztea ekarri zuen horrek.